




IXIN
PART

68

Guztion artean

2017

ABENDUA

ABENDUAK 21

San Tomas azoka
Ikastola



2018

URTARRILA OTSAILA

ABENDUAK 24

Olentzero eta Mari Domingi
Ikastola eta Plaza

URTARRILAK 28

Pirritx, Porrotx eta
Marimototsen ikuskizuna
Elorsoro



URTARRILAK 27 eta 28

Iraupen eskiko ikastaroa (Hautzaro Mendi Taldea)
Somport

OTSAILAK 2

Ihoteak
Plaza eta auzoak



OTSAILAK 4

Santa Ageda

OTSAILAK 9

Ihauteriak



Orientazio departamentua	4
KEI zigilua	5
Hirugarrenez txapeldun!	6
Haur Hezkuntzako espazio berriak	7
Erreleboa idazkaritzan	8
Golden 5	9
Gurasoak partaide	10
Urmendi Haur Eskola	12
Hatzak bete lan	13
Oiartzo	27
Ikastolako taldeak	28
Ikasgai osagarriak	29
Laburrak	30

ARGITARATZAILEA

Hautzaro Ikastola
Elorrondo z/g - 20180 Oiartzun
943 49 16 59
hautzaro@ikastola.eus
LG: SS-129/2001

DISEINUA ETA MAKETAZIOA
BIT&MINA

INPRIMAKETA
ANTZA

Paper birziklatuan inprimatua

Hemen gara berriro ere ikasturte berriarekin batera, Txinpart gure aldizkariaren ale berri batekin. Kontu interesgarri askorekin gatoz, eta edukiz bete-beteta.

Aurtengo berrikuntzen artean, HH marko berriaren abiaraztea dugu; udan egin ditugun obren argazki batzuk izango dituzue ikusgai. Baina ez da hori aurten dugun berrikuntza bakarra; Orientazio Departamentua ere berritu dugu. Orain arte arduraduna zen Miren Garbizuk aurre-erretiroa hartu du, eta horrek berregituraketa bat ekarri du. Hiru kide ditugu bertan, eta talde aparta osatzen dute. Berrikuntzekin amaitzeko, ezin ahaztu idazkari berria ere badugula; Arantza Urbietak ere aurre-erretiroa hartu du eta Oihana Irastorza dugu haren ordezkari gure artean.

Gainontzean, gure proiektuekin aurrera darraigu eta Golden 5en inguruan aurkezpen bat izango duzue, bai familiek eta bai langileok, gure egunerokoan, beharrezko dugun ikuspegi hezigarri bat izaten laguntzen digun tresna. HHko zenbait guraso ere lanean ibiliak dira eta HHko eremu berriaren kanpoaldeko lorategiari bizitza berri bat eman diote, elkarlanean eta ilusioz beterik. Noski, gure ikasleak hatzak bete lan izaten ditugu eta, egindako guztia ekartzea ezinezkoa denez, hemen duzue lagin bat.

Amaitzeko, bereziki gogora ekarri nahi dugu zendu berri den Periko Sanroma, Hautzaro Ikastolako Atletismo Taldeko fundatzaile, entrenatzaile eta alma mater. Ale honetatik omenaldi txiki bat egin nahi izan diogu, 33 urtez ikastolako pistak gazteen ilusio, kemen eta izerdiz bete dituen gizon bitxi bezain maitagarriari.



Orientazio departamentua

Ikasturte honetan Orientazio Departamentu berria jarri da martxan. Lehen eta Haur Hezkuntzan, aholkularia eta irakasle laguntzailea Nekane Orkaizagirre da. DBHn, orientatzaile eta irakasle laguntzaile lanak Tamara Yaoska Sastrek burutzen ditu. Lehen Hezkuntzan, irakasle laguntzailea Pili Lizaso da. Helburu nagusia da gure ikasleek ikaskuntza prozesuan izan ditzaketen zailtasun eta beharrei erantzuna emateko beharrezko baliabideen kudeaketa eta esku-hartzeen diseinua aurrera eramatea, oinarritzko konpetentziak ahalik eta gehien garatzeko, betiere, tutore, arloko irakasle, zuzendaritza talde eta gurasoei lan koordinatua aurrera eramanez.

Haur eta Lehen Hezkuntzako etapan, hauek dira **aholkulariaren funtzioak**:

IKASLEEKIN

1. Hezkuntza premia bereziak dituzten ikasleei banakako arreta eman, inguru arruntak elkarbanatuz edo haientzako inguru zehatzak sortuz.
2. Ikasleak ezagutzeaz arduratu eta haien beharrei era egokienean erantzuteko estrategiak bilatu.
3. Eskolaz kanpoko laguntzak ezagutu eta harremanak sortu.

IRAKASLEEKIN

1. Tutoreei zailtasunak identifikatzen lagundu, baita arrakasta emango dieten estrategiak zehazten lagundu.
2. Tutore eta arloko irakasleei banakako curriculum egokitzapenak egiteko laguntza eta aholkularitza eman.
3. Gelan tutoreekin elkarlanean esku hartu, gelan bi profesional gisa jokatzuz, edo talde malguak egiteko momentuan beste irakasle bat bezala jokatzuz.
4. Irakasle tutoreei etengabeko ebaluaketa egiten lagundu, bai ikasleena, bai hezkuntza testuinguruarena.
5. Tutoretza lanean, aniztasunarekiko arretan eta hezkuntza premia berezietan, berrikuntza eta prestakuntza programak sustatu eta koordinatu.
6. Irakasle Klaustroari burututako ekintzen berri eman eta bertan parte hartu, ekintza berrietan behar guztiei erantzuten zaiela baieztatzeko.

FAMILIEKIN

1. Ikasleen hezkuntza prozesuan inplikatu, ikastolaren eta familiaren artean lan koordinatua aurrera eramanez ahal izateko.
2. Une erabakigarrietan, ikasleei eta familiei aholku eman.

DBHko etapan, hauek dira orientatzailearen funtzioak:

IKASLEEKIN

1. Bizitza proiektua eraikitzeko beharko dituzten gaitasunak eskuratzen lagundu, arlo akademiko eta pertsonalean atentzio pertsonalizatua eskainiz.
2. Lanbide orientazioko programa aurrera eramanez, ikasleek etorkizunerako lanbide bat hautatu behar dutenean beharrezko informazioa izan dezaten.
3. Ikasketa prozesuan sor daitezkeen arazoei aurre egiten lagundu, eta, behar izanez gero, laguntza bideratu, betiere, guraso eta tutoreekin lan koordinatua aurrera eramanez.
4. Erabakiak hartzeko prozesuan laguntza eman.
5. Ikasleen artean, besteekiko errespetua eta elkarren arteko laguntza sustatu.

IRAKASLEEKIN

1. Ikasketa prozesuan zehar, ikasleek izan ditzaketen zailtasunen aurrean orientazioa eskaini, ikasleen beharrei erantzuteko esku-hartzea diseinatzeko.
2. Hezkuntza Premia Bereziko ikasleekin aurrera eramanez beharrezko esku-hartzean laguntza eta aholkua eskaini, ikasleen beharrek aztertzeko eta erantzun koordinatua aurrera eramanez ahal izateko.
3. Irakasle tutoreekin ikasleen jarraipena aurrera eramanez, ebaluazioa koordinatu ahal izateko.

FAMILIEKIN

1. Ikasleen orientabide pertsonalari edo bokazionalari buruz egiten dituzten banakako eskariei erantzun, eta beharrezko informazioa eskaini.
2. Ikasleen hezkuntza prozesuan inplikatu, ikastolaren eta familiaren artean lan koordinatua aurrera eramanez ahal izateko.
3. Une erabakigarrietan, ikasleei eta familiei aholku eman.

Iazko ikasturtean erretiroa hartu zuen Miren Garbizu psikologoak. Hark hainbeste urtetan egindako lanaren lekukoa jasoz, ilusioz beteta abiatu dugu Orientazio Departamentu berria.





Hautzaro Ikastolak kalitatezko hezkuntzaren zigilua eskuratu du, KEI

Hautzaro ikastolak KEI (Kalitate Egitasmo Integratua) kalitate ziurtagiria eskuratu du. Auditoria 2016/2017 ikasturte amaieran bikain gainditu ondoren, 2017ko azaroaren 10ean, Oiartzungo udal aretoan egindako ekitaldian jaso zuen KEI kalitate zigilua, Horreum fundazioaren eskutik.

Kalitatea ez da kontzeptu abstraktua. Alderantziz, ziurtagiri honek ongi erakusten duen bezala, zehatz neur daitekeen kontzeptua da. Horretarako, KEIk ikastetxeko funtzionamendua eta lana zazpi arlotan banatzen ditu: erakundearen planteamenduaren eremua, antolakuntza egituren eremua, harreman eta elkarbizitza sistemaren eremua, tutoretza eta orientazioaren eremua, curriculumaren eremua, familia eta inguruaren eremua eta, administrazio eta zerbitzuetako eremua.

Horreum fundazioko kalitate egitasmoaren auditoreek zazpi eremu horietan egindako lana ebaluatu zuten ekaina amaieran, eta baieztatu zuten Hautzaro ikastola prozesuen eta pertsonen lanaren hobekuntzan oinarritutako erakundea dela. Hau da, kultura burokratiko formala alde batera utzi eta lan prozesuak pertsonen hazkuntza gizatiar eta profesionalean oinarritzen dituen erakundea dela.

Ekitaldi xume bezain hunkigarria

KEI zigilua jasotzeko ekitaldian, Ikastolako lehendakari Axier Bergaretxek, Ikastolako zuzendari Aritz Gonzalezek, Ikastolako zuzendari ohi Sorkunde Lekuonak eta Horreum fundazioko presidente Aurelio Villak hartu zuten hitza. Guztiek goraipatu zuten Hautzaro ikastolaren komunitate osoaren parte-hartzea. Izan ere, Aurelio Villak adierazi bezala, «kalitatea ez da helburua, eta ez da ziurtagiri batean laburbiltzen eta amaitzen. Kalitatea da Ikastolako komunitate osoak helburu komun bat izatea, lantaldeak funtziona dezan eta ikasle guztiek ahalik eta garapen handiena erdiets dezaten, guztiek elkarrekin».

Hautzaro ikastolako zuzendari Aritz Gonzalezek Ikastolako komunitatea osatzen duten kideen aniztasuna eta konpromisoa

goraipatu zituen. «Aniztasuna aberasgarria da, eta gure komunitateko kideek erakusten duten konpromisoa da egiten den lanaren bermea. Horregatik da Hautzaro ikastola proiektu sendoa». Etorkizunera begira lanean jarraitzeko asmoa berretsi zuen, eta, horretarako, KEI eguneroko lan tresna izango dela esan zuen. «Azken finean, KEI ez da helburua. Ondo dago eta poztan gara ziurtagiria jasotzeaz, baina KEI jarritako helburuak erdiesteko gure eguneroko lan tresna bat izango da».

2006an hasitako ibilbidea

Hautzaro ikastolako zuzendari ohi Sorkunde Lekuonak, KEI prozesua zuzendu duenak, gogora ekarri zuen KEIrekin lanean hasteko erabakia nola hartu zen. «2006an, KMK arrakastatsuak antolatu ondoren, Kontseilu Errektore berritua zuen Ikastolak. Lanerako gogoz geunden, eta beharrezko ikusi genuen Ikastola ongi kudeatu eta erabakiak hartzen laguntzeko lau urterako plan estrategikoa idaztea. Ikastolen Elkarteko Juanjo Gomezen laguntza eduki genuen horretarako, eta, 2009an, plana idatzita zegoen. Ondoren, Ikastolan egiten zen lana ordenatu eta ahalik eta eraginkorrena izan zedin, KEI lantzea erabaki zen. Ikastolak egina zuen kalitatezko hezkuntza baten aldeko apustua».

Horrela, KEI lantzeko zazpi lantalde sortu ziren, eta, 2010az geroztik, Ikastolako lan prozesuak hobetzeko neurriak zehazten jardun da. Esan bezala, prozesuan Ikastolako komunitate osoak hartu du parte; beraz, komunitate osoarentzat izan da berri pozgarria KEI zigilua jasotzea.

Hizlariet gain, dantza ikuskizun hunkigarriak eskaini zituzten Aritz Salamanca, Udane Eskudero, Ekain Susperregi eta Aiora Etxebeste dantzariak eta Arkaitz Miner biolin-jotzaileak. Ekitaldiaren amaieran, Ikastolako kideek eta gainerako gonbidatuek lunch goxo baten inguruan partekatu eta gogoratu zuten prozesuan zehar egindako ibilbide oparoa.

Joana Mendiburu





Hirugarrenez txapeldun!

Aurtengoan ere Haurtzaro ikastolako DBHko 3. eta 4. mailetako gazteok Kilometroetako Erronka lehiaketan parte hartu dugu. Lagunarteko eta esperientziaz beteriko eguna izan da guretzat!

Erronkan lehiatzeko 18 lagunekoa taldea osatu genuen. Aurtengoan, zaila izan da taldeko partaideak erabakitzea; izan ere, askok eman genuen izena. Horregatik, zozketa bidez egin genuen aukeraketa.

Lehiaketa honek bi zati zituen: bideo lehiaketa eta erronkako proba.

Bideo lehiaketa oso dibertigarria egin zitzaigun, taldeko partaide guztiek gure ezaugarriak erakusteko aukera izan baitzuten: bizkortasuna, malgutasuna, indarra, inteligentzia, teknika... Horretarako, hainbat material erabili genituen (sokak, trizikloak, palak...), eta, pazientzia hartuta eta lan pixka bat egin ondoren, gure bideoa aurrera eramateko gai izan ginen. Zortea izan genuen hemen ere, Haurtzaro ikastolako bi ikasle ohiren laguntzaz editatu baitzuten bideoa. Horregatik, eskerrik asko lagundu diguzuenoi eta botoa eman diguzuenoi!

Hasteko, goizeko 7etan Haurtzaro Ikastolako aparkalekuan bildu ginen lehiakideak. Oñatira iritsi eta bertako plazan elkartu ginen talde guztiak, erronkaren aurkezpena egiteko. Goizean bi proba izan genituen; lehenengoa, lokotx bilketa moduko bat izan zen, eta, bigarrenean, zirkuitu bat osatu behar izan genuen. Bi probak tentsio handiz beterikoak izan ziren, gainerako ikasleetako kideek ere oso ondo jokatu baitzuten.


Bazkaldu ondoren, berriz, finala iritsi zitzaigun, emozioz eta urduritasunez beteriko proba. Aurtengoan, talde guztiek parte hartu behar zuten. Halere, bosteko txandak egin ziren 20 taldeen artean. Txandak antolatzeke, goizeko probetako emaitzen sailkapena izan zuten kontuan. Zoritxarrez, taldekide guztiek ezin izan genuen parte hartu, zortzi pertsonak soilik izan baitzuten finalean parte hartzeko aukera. Halere, gainerakoek oihuka animatu genuen gure taldea!

Esperientzia izugarria izan zen, talde giro bikainean pasa baitzuten eguna.

Bukatzeke, talde guztiaren izenean eskerrak eman nahiko genizkieke Leire Lekuona eta Iñaki Lertxundiri; izan ere, beraiei esker iritsi gara gauden lekura, egin duten esfortzu eta lan guztiagatik. Mila esker, bikote!



Haur Hezkuntzako espazio berriak



Erreleboa idazkaritzan

Honezkero jakinaren gainean egongo zara, irakurle. Ikastolako idazkaritza eta administrazio alorrean aldaketak ditugu: Arantza Urbietari iritsi zaio ongi merezitako aurre-erretiroa hartzeko garaia, eta haren lana Oihana Irastorza egingo du.

Arantza 1982an hasi zen lanean gurekin, atera kontuak! Orduz geroztik dena joan da aldatuz gure ikastetxean, eta, bata bestearen atzetik, aurre egin behar izan die erronka berriei. Egin beharra aldatu zaio, baina baita lanabesak ere: manibela zuen multikopistatik fotokopiagailura, edota kalko-orriak jartzen zizkion idazmakina astunetik ordenagailura. Gauza da, denbora honetan guztian makina bat izen eta abizen, aurpegi eta pertsona geratu zaizkiola itsatsita memorian. Bere bizitzaren zati handiena hemen igaro du eta denetatik bizitzea tokatu zaio: une gozoak eta gaziak. «Denekin geratuko naiz –dio, galdetzerakoan–, denek lagundu baitidate orain naizen pertsona izaten».

Haren ordeaz, Oihana Irastorza topatuko dugu ilusio betez idazkaritzan. Oihana oiartzuarra dugu. Lezoti baserrikoa; «zetaz, e!», dio, argi gera dadin. Bere anaia eta ahizpak bezala, Haurtzaroko ikaslea izandakoa da; geroxeago, guraso papera betetzen hasteko garaia etorri zitzaion, eta, orain, langilearena. Beste hainbatek bezala, ikasle garaiko oroitzapen oso onak omen ditu eta hor sartzen ditu, baita ere, gaur lankide dituen irakasleak. «Gainera, oso harrera beroa egin didate denek, eta ilusio bereziarekin bizitzen ari naiz. MILA ESKER handi bat helarazi nahi nieke nire lankide guztiei emandako harrera beroagatik, baita beraien laguntzeko jarreragatik ere. Nola ez, aipamen berezia Arantza Urbietari, bere pazientzia erraldoiagatik».

Gure aldetik ez zaigu besterik geratzen: ongi etorri zure etxera, Oihana! Eta zorte on zure etapa berrian, Arantza! Hemen izango gaituzue.



Golden 5: nola sustatu ikaslearen autonomia

Golden 5ek **gizaki bakoitzaren oinarritzko hiru behar psikologikoren garapena** asebetetzea du helburu. Hauek dira hiru behar horiek: **Kompetente sentitzeko ahalmena** («Nik ahal dut»), **Harremanak izateko beharra** («Nik konfiantza dut») eta **Autonomo sentitzeko beharra** («Nik aukeratzen dut»).



Oraingoan, **ikaslearen (seme edo alabaren) autonomiaren garapenaz** mintzatuko gara eta gogoeta egingo dugu, gelan eta ikaslearen bizitzako beste esparru desberdinetan ikaslearen autonomia errazteko. «**Ikaste doituaren**» eta «**harremanak eraikitzearen**» inguruan egituratu eta garatzen da bereziki ikaslearen autonomia.

Autonomia garatzeko **hiru dimentsio** egituratu behar ditugu: **aukeraketa**, **auto-erregulazioko estrategiak** eta **sinkronia**.

1. dimentsioa **barne motibazioa suspertzea** izango litzateke. Suspertze horretarako, oso kontuan eduki beharrekoak dira **aukeratzeko** gaitasuna eta **norberaren interesa**. Ikasleek zailtasun maila desberdineko eta lan estrategia zehatzak eskatzen dituzten zeregin desberdinak eguneroko praktikan aurkitzen dituztenean, Golden ikusmiratik aukeraketa egiten ikas dezatela lortu nahi dugu eta ikaslearen interesak ere integratzen saiatzen gara.



2. dimentsioa **ikastea errazago bilakatzea** da. Ildo honetan aurrera egiteko, benetan garrantzitsua da **auto-erregulazioko estrategiak** era egokian kudeatzen trebatzea. Hemen, **feedbacka** (balorazioa, *retrospective action*) deitzen dugun ebaluazio formatiboak zer bidetatik egin behar duen azalduko dizuegu: arrakasta handiena lortzeko ematen dugun **orientabidea beti positiboa eta konstruktiboa** eta irtenbide eta **portaera positiboetara zuzendua** izatea komeni da.

3. dimentsioa **giro positibo, atsegin eta harmoniatsua** sortzea da: zehazki esanda, **sinkronian** izatea harremanak. Horretarako, edozein une gatazkatsutan edo arazo egoeratan **Golden ikusmira hartzen** ahalegindu beharra daukagu, eta **entzuteko prest** egon. **Errespetuzko hitzak** erabili eta, aldi berean, eskatu. Ez dugu ahaztu behar **pazientzia** balio handia duen bertutea dela, eta **gertakizunek nolako bilakaera izango duten egoki ezagutzeak egoeraren kontzientzia hartzen lagunduko digu**. Praktikatu ditugun gainerako dimentsioetako faktoreekin batera, sinkronian, Golden 5 ikusmiratik jardun ahal izatea ahalbidetuko digu.

Azkenerako, Ikastolan ikaslearen autonomia garatzen nola laguntzen dugun ikusi ondoren, laguntza hori nola, zein begiradatik, eskaini genezakeen **etxean** agertzea besterik ez zaigu geratzen: irakasleen artean bezala, **Golden begirada eta egiteko era** guraso, tutore eta familiakoen artean praktikan jartzeak eta zabaltzeak onura besterik ez dio ekarriko hain garrantzitsua den eta denon artean sustatu nahi dugun ikasleen (gure seme-alaben) autonomiaren garapenari.

Golden 5 arduradunak (Bizikidetza taldea)





Auzolanean, Haur Hezkuntzako kanpo eremua txukuntzen

Haur Hezkuntzako kanpo eremua atontzeko hainbat guraso ibili dira lanean, ideiak proposatzen, materiala lortzen eta auzolanean.

2017/2018 ikasturtea gela berri eta zoragarrietan hasi dute Haur Hezkuntzako irakasleek eta ikasleek. Orain arteko espazioaren antolaketa goitik behera irauli eta material natural eta goxoz egindako espazio irekiak, lanerako txokoak, psikomotrizitatea lantzeko guneak... eskaintzen dizkie gelak haurrei.

Lanak garaiz burutzeko lan bikaina egin da udaran, eta, bi egunez, Ikastolako hainbat gurasoren laguntza ere jaso da, besteak beste, eraispen lanetarako. Baina gurasoen lana ez da Ikastolatik jasotako eskaera horretara mugatu. Ikasturte hasieran, barruko eremua lanerako guztiz prest eta antolatuta bazegoen ere, Iraia Etxebestek jakinarazi digunez, «guraso bilgunetik kanpoko eremuari jolaserako elementu batzuk proposatzeko asmoa agertu zen. Bitarte horretan, irakasleek ere kanpoko espazioarekiko zenbait errezelo zituztela jakin genuen, besteak beste, belar asko zuelako eta, hemengo eguraldia kontuan izanik, aurreikusten zutelako ez zutela nahi adina aprobetxatzeko aukerarik izango. Gauzak horrela, elkarlanean zerbait polita lantzeko aukera paregabea zela ikusi zen».

Horrelaxe hasi ziren lanean Haur Hezkuntzako zenbait guraso eta irakasle. Bi bilera egin dituzte, ideiak trukatu eta guztien artean proiektua adosteko. Bide horretan, aipatzekoak dira Iker Goikoetxea, Haur Hezkuntzako guraso eta Kimu bat enpresako kidearen aholkuak, besteak beste, erabil zitekeen materialaren eta prezioen inguruan. Eli Olasagasti gurasoak gogoratzen duenez, «bileran, irakasle eta guraso artean adostu zen lehen diseinua, zer egin nahi zen, eta, ondoren, Ikerrek hori gauzatzeko proposamen zehatza egin zuen. Ideia landuta eta materiala eskura genuela, hiru egunez, auzolanean jardun dugu kanpo espazioa egokitzen».

Auzolanean, batez ere prozesuan parte hartu duten gurasoak ibili dira, baina baita Haur Hezkuntzako beste familia batzuk eta haurrak ere. Zigor Goikoetxea Haur Hezkuntzako gurasoaren hitzetan, «haurren parte-hartzea oso polita izan da. Guk ongi pasatu dugu, baina beraiek, zer esanik ez! Harri txintxarrak mugitzen, lurra iraultzen, pintatzen, belarrak kentzen... Ongi pasatu dute, eta, bide batez, espazio berriak errespetatzen eta zaintzen ere ikasi dute».






Prozesu polita bezain emankorra

Irailan ideiak trukatzeko batu eta urri amaierarako lanak amaituta zeuden. Laster eta modu eraginkorrean egindako lana izan da, ezbairik gabe. Zigorren iritziz, «prozesua bera izan da oso polita, eta guztiak konturatu gara, baliabideak jartzen ditugunean, hurrei aukera ematen diegula beraien modura jolasteko eta espazioa aprobetxatzeko. Ikasgai bat ere izan da, ikusi baitugu ariketa berriz egin genezakeela beste adin batzuetako haurrentzat beste espazio bat egokituz. Azpimarratuko nuke, baita ere, egun-pasa polit batzuen bueltan, gurasoek elkar ezagutzeko aukera ere sortu dela».

Prozesu lasterra, baina batez ere, auzolanaren erudia izan da. Iraiak dioen bezala, «batzuek ideiak ekarri dituzte; besteek, materialak; hurrengoek, beraien denbora... guztien artean egindako lana izan da, eta emaitza, begi bistakoa». Orain, haurrek goza dezatela!



Tartalo pizzeriara bisita



Iazko ikasturtearen erdialdean, TARTALOKO PIZZA-EGILE eta Haur Eskolako guraso ditugun Ruben eta Izaroren gonbidapena jaso genuen beraien txokora joateko. Ez genuen aukera galdu nahi izan, eta ostiral eguzkitsu batean abiatu ginen Urmendiko ertainak (1-2 urtekoak) Tartalorantz. Bertara iritsitakoan, besoak zabalik eta irribarre handi batekin jaso gintuen artista pare honek.

Barrura sartu eta uuummm! Zer usain goxoa! Eta ze goxo suarekin piztutako labe handi haren ondoan! Labeko suari ere jaten eman genion, «aho» edo zulo handi hartatik egurrak sartuz, handitu zedin.

Rubenek eskainitako pizza masari helduz, hor ekin genion «ttiriki-ttarraka» eskuz hura lantzeari: eragin eta eragin. Zer nolako kategoria gurea! Bakoitzak bere masa zati ttikia eskuetan zuela, gustura aritu ginen, batzuek zuloak eginez, besteak masa zapalduz... langintza berri honetan erabat interesaturik.

Rubenek opil borobil eta mehe haren gainean osagaiak nola jartzen zituen ere ikusi genuen: piperrak, tomatea, txanpiak, urdaiazpikoa, gazta... Eta halaxe sortu genuen URMENDI PIZZA! Koloretsua eta benetan goxoa!

Rubenen pala handiaren gainean jarri eta barrura, sutara! Baita gure eskuekin landutako masa zatiak ere. Lanaren emaitza probatzea izan zen hurrena eta kar, kar, zer hamaiketakoa egin genuen pizza janez! Goxo askia zegoen, e?! Gure opiltxoak etxerako gorde genituen eta ilusio handiz erakutsi genizkien gurasoei ondoren.

Hau guztia jakinda, Urmendi pizza probatzera animatzen zaituztegu eta koxka bakoitzean gure sukaldari txiki hauekin gogoratu zaitetzte!

Bukatzeko, mila esker zuei, Ruben eta Izaro, goiz-pasa goxo eta eder honengatik! Eskerrik asko gure etxean bagina bezala sentiarazi gintuzuelako! Aurten ere gustura joango gara berriz!

Aitor Iraola, Koro Izagirre eta Maru Rivas



HAUR HEZKUNTZA 1

Gure lehenengo irteera!



UDAZKENA IRITSI DA, ETA, HOSTOAK FIRIN-FARAN DABILTZANEZ, HIRU URTEKO NESKA-MUTILAK TXARAKO BASORA JOAN GARA HOSTOAK, EZKURRAK, ADARTXOAK... BILTZERA. GURASOEK PRESTATUTAKO HAMAIKETAKO GOXO-GOXOA JAN ONDOREN, LAGUNTXOEKIN JOLASTEN ERE EDERKI PASATU DUGU!

IKUSI BASOTIK EKARRITAKO ADARTXOEZ TXERRIKUMEEN ZER ETXE POLITA EGIN DUGUN!



Mugimenduaren garrantzia

MUGIMENDUA HAURRAREN GARAPENAREN ARDATZ GARRANTZITSUA DENEZ, HAURREN BEHAR HORRI ERANTZUTEKO BALIABIDEAK JARRI DIRA GURE IKASTOLAN.

HASIERATIK, HAURRA ADIERAZPEN MOTRIZAZ BALIATZEN DA INGURUKO MUNDUA BEHATZEKO, BERE BURUA EZAGUTZEKO, BEHARRAK ASETZEKO ETA ERA AUTONOMO BATEAN MOLDATZEKO.

MUGIMENDUAREN ONDOREN, BAKOITZAREN DESIO ETA JAKIN-MINAREN ARABERA, BESTE ESPAZIOETARA JOANGO DA. JARDUERA MOTOR HONI ESKER, GARUNA GARATUZ DOA ETA HURRENGO PAUSOAK EMATEKO PREST AZALTZEN DA.



HAUR HEZKUNTZA 3

Jolasa: zein garrantzitsua den jolastea!!!



EGUNEROKOTASUNEAN BEHIN ETA BERRIZ IKUS DAITEZKE HAURRAK JOLASEAN. UNE BAT HAURREI BEGIRA GERATZEA NAHIKOA DA OHARTZEKO HAURREN JOLASEAN ZENBAT GAUZA LANTZEN DIREN, ZENBAT EKINTZA IZATEN DIREN, ZENBAT EMOZIO SORTZEN DIREN, ZENBAT KONPARTITZEN DUTEN, ZENBAT JASO ETA EMATEN DUTEN...

HORI DELA ETA, HAURRAREN JOLASARI EZINBESTEKO GARRANTZIA EMAN BEHAR ZAIO.

IZAN ERE, JOLASAREN BIDEZ, HAURRA INGURUAREKIN HARREMANETAN JARTZEN DA, BERE GARAPEN OSOA AHALBIDETUZ. HAURRAK JOLASTUZ ESPLORATZEN, SENTITZEN ETA EZAGUTZEN DITU BERE BURUA ETA INGURUNEA.

HAUR HEZKUNTZAKO 3. MAILA HONETAN, GERO ETA GEHIAGO BESTEEKIKO HARREMANAK KUDEATZEKO GAITASUNA ERAKUSTEN DUTE.

HORIEK HORRELA, MAHAI JOLASEAN, TALDE JOLASEAN, JOLAS SINBOLIKOAN ETA ABARRETAN JOLASTUZ, HAURREK ETENGABE ERAKUSTEN DUTE TALDEAN JOLASTEKO PREMIA DUTELA.

GOZA DEZAGUN HAURREN JOLASA BEHATUZ ETA ERRESPETATUZ!!!!



Denboraren makina



1. MAILAKO LAGUNAK FERMIN ETA
MADDALEN BEZALA DENBORAREN
MAKINA SORTU DUGU. GELAKO DE
GUZTIAK ELKARRA EKITU.

DENBORAREN MAKINA GARAI DESBERDINETAN

ZEHAZ BIDAIATZEKO SORTU DUGU.

GARAI DESBERDINETAN NOLA BIZI ZIREN KUSI ETA

IKASIKO DUGU.



EZIN/HOBE/BITAIN/PASATU/DUGU
GELAN IDENBORAREN/MAKINA
EGITEN! NOLAKOA/EGIN/PENTSATU
MATERIALA EKARRI/ETA/ELKARRA EKITU/
EGIN DUGU!

ETXETOKO ARKO GUSTATU ZAIZKIE GURE MAKINAK
LAN HANDIA EGIN DUGULA EZAN DIGUTE
BERATEK ERE GUREKIN BIDAIATU NAHI DUTEN



LEHEN HEZKUNTZA 2

Erdi aroan murgildu gara




Fermin eta Maddalenek proposatuta, denbora makinan sartu eta Erdi Arora joan gara.
Zer nolako garaia izan zen: feudoa, hiribilduak, herrien sorrera...
Oiartzun ere garai honetan sortu omen zen!

Feudoan bizitzea gogokoa izango genukeen gazteluan (dama edo zaldun bezala) bizitzeko aukera izango bagenu, baina herritarra izatea... A ZER LANA!

Hiriak sortu zirenean, berriz, gremioetan antolatzeko aukerarekin libreago izateko aukera, ESKERRAK!

Baina Oiartzun sortu zenean... Gipuzkoako herririk politena sortu zen.

«Entetu al tzazte arront dorretxe eleantik
ttugula herriyan? Ba, pasitu, pasitu, ta
historiyan sartu, geone bezela!»




«GURE TXOKO KUTTUNA»



Txanelako 1. unitatean, “GURE TXOKO KUTTUNA” landu dugu. Gure txokoa Oiartzun da. Badu ezaugarri bat gure herriak: eremu zabala zortzi auzotan banatuta. Auzoak bere artean desberdinak izanik, herri anitza osatzen dute.

LHko 3. mailako geletan auzo desberdinetako kideak biltzen gara; horregatik, astearte arratsaldetan auzokideak elkartu eta LAPBOOKak osatu ditugu. Osatu, gozatu eta aurkeztu. Gelan, gelakideei gure auzoaren berri eman diegu. Orain gure korridoreetan daude ikusgai. Bertan auzo mota, auzo bakoitzaren bereizitasunak, leku interesgarriak, zerbitzuak, argazki zaharrak jaso ditugu.



Zumetaren antzera



Ikasturte hasieran, plastikako arloan, Zumeta margolariaren berri izan dugu. Artista honen artelanak eta nondik norakoak jakiteko asmoz, hiru saio egin ditugu 4. mailakook.

Zumetak, margolari usurbildarrak, erabiltzen dituen konposaketei eta koloreei arreta jarri genien lehen saioan. Konturatu gara kolore gorriak, horiak eta urdinak esanguratsuak direla haren obretan. Beraz, kolore primarioetatik abiatuta kolore nahasketak egin ditugu lehenik.

Koloreekin esperimentatu ondoren, material desberdinarekin lanean aritu gara: manleiekin lehenik, eta, ondoren, tenperarekin. Zumetari kolore batek hurrengo zein izan behar duen XUXURLATZEN dio; guk ere, ariketa berdina eginez, gure artelanak osatu ditugu hurrengo bi saioetan.

Izugarri gustura aritu gara elkarlanean eta bakoitzaren ideiak Zumetaren antzera azaltzen!



FIE (Fortnight Immersion to Explorers)



Ikastolen Elkartek bideratutako proiektua den FIE 2016/2017 ikasturtean eraman zen aurrera lehen aldiz Haurtzaro ikastolan. LHko 5. mailako ikasleei zuzenduta dago eta haren helburua da Eleanitz proiektuko «The Explorers 1» 1. unitatea lantzea, modu intentsiboan, era ludikoago batean eta irakasle natiboekin.

Proiektuak eskatzen duen bezala, ikasleak talde txikiagoetan antolatzen dira; hau da, 16-17 lagunekoko taldeak osatzen dira, ikasleari interakzioan aukera gehiago emateko asmoarekin.

Aurten LHko 5. mailako ikasleak jatorri ezberdinetako irakasleekin aritu dira: Australia, Erresuma Batua, Brasil eta Poloniakoak, hain zuzen. Irakasle hauek behar zuten formakuntza Ikastolako ingeles irakasleengandik jaso zuten ikasleekin hasi baino lehenago. Era berean, proiektuak irauten zuen bitartean jarraipen zuzena egin zen.

Hementxe daukazue FIE esperientziaz gure ikasleengandik jaso duguna:

«Oso ongi pasa nuen FIE egin genuenean.

Oso ondo sentitu nintzen, oso neska ona baitzen eta denbora guztian jokoak egiten ibili baikin.

«I had a very good time. I was very happy because we played games and a lot of things more.»

«Primeran ibili ginen. Asko gustatu zitzaidan: nire irakaslea oso jostagarria zen eta oso ondo pasatu nuen.»

«Banekien asko ikasiko nuela. Primerakoa izan zen.»

«Oso ondo eta pozik ibili nintzen. Aberatsa izan zen, beste tokitakoek beste modu batera hitz egiten dutelako ingelesez.»



LEHEN HEZKUNTZA 6

Bertso emanaldia



LH 6kook bertsolaritza landu dugu 1. ebaluazioan, Euskara irakasgaian, eta, ikasitakoa aplikatzeko, bertso emanaldi zoragarria eskaini genuen. Bertsoak sortzeko, gela bakoitzak gai bat aukeratu zuen, eta, taldetan banatu ondoren, talde bakoitzak azpigai bat aukeratu zuen. Guk sortutako bertsoez gain, gelan ikasitako usadiozko bertsoak ere abestu genituen guztiok elkarrekin; eta emanaldia bukatzeko, Musikan landutako gorputz perkusioa baliatuz bertso batzuk abestu genituen.

Primerako saioa izan zen; hemen duzue adibide txiki bat:

GAIA: TITANIC

AZPIGAIA: Iceberga ikusten dutenak

Katalejoak erori
zaizkigu uretara
eta gainera elurra
dago mara-mara
Katalejorik gabe
itsuak al gara?
Ikusi dugun hori
iceberg-a al da?

GAIA: GOLOSINAK

AZPIGAIA: Destroyer txiklea

Ez zait niri gustatzen
dendan egotea,
baina gustatzen zaizu
zuri ni jatea.
Ni naiz txutxe dendako
txikle pikantea.
Ba al dakizue zein
den gure txikle?

GAIA: SUPERHEROIAK


AZPIGAIA: Superalferrak

Atzo agertu ziren
bost euro ederrak
perezak jo ninduen
jaisteko izterrak
sofan eseri eta
han bota puzkerrak
Super Heroiak gara
ta Super Alferrak!

GAIA: AITON ETXEKO DISKOTEKA

AZPIGAIA: DJak

Gu hementxe gaudela
gero ta okerrago
aiton-amon artean
martxarrik ez dago
garaia aldatu da
dantza sexiago
gu DJak garenez
elektro gehiago!



DBH 1

KIVA EGUNA DBH 1en



Kaixo!


DBHko 1. mailako ikasleak gara, lehenengo hiruhileko honetan tutoretza orduan Kiva proiektua lantzen ari garenak. Eta, hasteko, Ikastolako kide guztiekin batera KIVA EGUNA ospatu dugu.

Egun horretan artista lanetan aritu gara, KIVA ardatz hartuta eskulturak egiten.

«Elkarrekin gustura» leloa entzunda, burura etorri zaizkigun ideiekin proiektuak sortu ditugu taldeka. Eskultura oso desberdinak egin ditugu, ideiak edo gu bezala, anitzak.

Paper, buztin, kola, globo, margo, txotx, plastilina... materialak hartu eta elkarrekin ederki aritu gara.

Gora Kiva proiektua, eta gora Kiva ikastola!



DBH 2

Musika instrumentua

TRESNERIA:

Zerra
Kola
Kuterra
Torlojuak
Iltzeak
Mailua

MATERIALAK:

Zapata kaxa
Egurra
Hiru txintzarri handi
Kola
Burdina
Kartoia

MUNTAIA:

Zapata kaxa bat bertikalean jarri dugu. Hiru txintzarriak goiko aldetik zintzilikatu ditugu kaxan zuloa eginez. Ondoren, pianoaren tekla izango den egur zatia beste egur bati itsatsi diogu “L” baten forma eginez. Gero, “L” formako egur puska kaxaren barruan jarri dugu. Hatzaz egurrezko tekla ukitzerakoan, tekla itsatsita duen egurrak txintzarria jotzen du.

INSTRUMENTUA:

- Txintzarri soinua egiten du instrumentuak.
- Tekla bat zapaltzean, hark egur bat mugituko du, eta azken horrek txintzarria joko du.
- Hidiofonoa da.

Naia Odriozola, Iraitx Maritxalar, Janire Perurena eta Xabat Olaiz



Zazpi egun Britainian



Irailaren 25etik urriaren 1era Britainiako Gwiseni herrira bidaiatzeko aukera izan genuen, eta, horrekin batera, bertako hizkuntza, kultura eta herrialdea ezagutzeaz gain, Britainiako «Skolaj Diwan»eko ikasleekin harremanak egin eta ongi pasatu genuen.

Britainia Frantziaren ipar-mendebaldean dago, eta Armorika penintsula osoa hartzen du. Britainiak, guztira, 4.365.500 biztanle ditu, eta haietatik 400.000 inguruk bakarrik hitz egiten dute bretoieraz. Gu Finisterre departamentuko iparraldera joan ginen; Gwiseni herrira, hain zuzen.

Bidaia honi esker konturatu gara Britainian bretoieraz hitz egiteko ohitura gutxiago dutela hemen euskaraz baino; hau da, hemen euskara gure egunerokoan erabiltzen dugun bezala, han eskolako hizkuntza moduan hartzen dute askok. Hala ere, antzekotasunak ere baditugula konturatu gara: Euskal Herrian lauburua dugun bezalaxe, han hiru buruko **triskella** dute.



Lehenengo egunetan gehienoi zaila egin zitzaigun familiara egokitzea, hizkuntza desberdin batean mintzatzea, bertako elikadurara eta ordutegira ohitzea... Batetik, Izaro Altunak honela adierazi du: «ez nuen gogorik izaten etxera joateko momentua heltzeko; triste jartzen nintzen eta Oiartzungo etxera itzultzeko gogoa izaten nuen». Bestetik, Unax Zalduak hau azaldu digu: «frantsesez hitz egiteko zailtasunak nituen eta ezin izaten nuen familiarekin komunikatu». Dena den, batzuk hasieratik gustura egon ziren; «pozik joaten nintzen etxera, nire kidearekin ekintza desberdinak egiten nituelako», gaineratu du Maialen Gilek.

Egitaraua denen gustukoa izan zen:

Astelehenean, goizeko zazpitan, Oiartzundik atera ginen, eta hainbat geldialdi eginez arratsaldeko zazpi eta erdietan iritsi ginen eskolara. Bertan zain genituen gure kideak eta haien familiak, segituan bakoitza bere familiarekin etxera joan zen.





Hurrengo egunean, lagunekin elkartu eta euskaraz hitz egiteko gogo biziz geunden. Astearte goizean herria bisitatu genuen, liburutegia ezagutu, eliza eta haren ingurua... Horren ondoren, eskolako jantokira joan ginen eta gure kideekin batera bazkaldu genuen. Arratsaldean hondartzan, uretako jokoak egin genituen eskolako kide guztiekin, eskolaren hogeita hamargarren urteurrena ospatzeko. Gauvaldera bertakoek **fest-noz** izeneko festa antolatu ziguten, eta bertan dantza ere egin genuen!

Asteazkenean familia eguna izan zen, eta ekintza desberdinak egin genituen haiekin batera: batzuk patinatzerara joan ziren; beste batzuk, **laser-game** izeneko jokoan ibili ziren...

Ostegunean, Lesneven herria eta bertako **Musée du Léon** bisitatu eta, gero, belagurdian ibiltzen ikasi eta disfrutatu genuen.



Ostiralean, Brest hiriko **Océanopolis** aquariumean bertako itsas fauna ezagutu eta bazkaldu ondoren, Brest hiria ikusteko aukera eman ziguten.

Larunbatean, berriro familiarekin egon ginen eta beste hainbat ekintza desberdin egin genituen: boloetara joan, katamaranean ibili, erosketak egin...

Igande goizean, mailetak prestatu eta kideak eta haien familiak agurtu ondoren, pena handiz bederatzietan autobusera igo eta Oartzun aldera abiatu ginen. Gaueko bederatzia eta erdietan ikastolan gurasoekin elkartu eta bakoitza bere etxera joan zen. Hortxe amaitu zen gure abentura.

Hainbat momentutan gure inguruaren beharra sumatu bagenuen ere, oso esperientzia polita izan da, eta, horregatik, hurrengo urteetan Britainiara joatea egokitzen zaizuenei aukera aprobetxatu eta ongi pasatzea gomendatzen dizuegu!

KENAVOI!

Egileak: Udane Olagüe eta Lohizune Telletxea.

Euskal Herriko matematikariak

Bizkaita, 1960

Marta Macho Stadler

Geometria eta Topologia irakaslea da Euskal Herriko Unibertsitatean, eta Follazioen Teoria Geometrikoko eta Geometria ez abeldarrenean aditua da. Kultura Zientifikoko Katedrako Mujeres con Ciencia espazio digitalaren editore ere bada, eta lan honengatik sari batzuk jaso ditu, artean 2016ko Berdintasunerako Emakunde Saria.

Bere ikerketa gaien artean, Follazioen Teoria Geometrikoa da aipatzekoa.



Tulera, 1092 - Claborra 1167

Abraham Ben Meir Ibn Ezra

Nafarroako Erriberako pertsonaia garrantzitsua izan zen. Medikua, poeta, gramatikoa, matematikaria, filosofoa, kabalista, astronomo eta bidalaria izan zen.

EGINDAKO LANAK

- Sefer ha-Ehad, 1etik 9ra zenbakien bereiztasunen inguruan.
- Sefer ha-Mispar edo Yesod Mispar, aritmetikaren inguruan.
- Luhot, taula astronomikoei.
- Sefer ha-Tibur, egutegiaren inguruan.
- Keli ha-Nehoshet, astrolabioaren inguruan.
- Shalosh She'elot, David Narbonne hiru gai kronologikori egindako erantzuna.
- She'elot eta Kadut, Mashallah astrologoaren bi lanen itzulpena.
- Sefer Ha't'aninim, arabier astrologiari sarrera.
- Reshith Hochma, astrologiari sarrera.

Bargiko krater batek bere izena darama.



Dinastia Gipuzkoa, 1925 - 1997

Karlos Santamaria

Karlos Santamaria Ansa matematikaria, euskararen eta euskal kulturaren aldeko ekintzailea, irakaslea, politikaria eta idazle euskaldun berria izan zen. Ehunka artikulatu idatzi zituen prentsan, eta zenbait liburua.

EGINDAKO LANAK:

- UZEiren Matematika hiztegia (1982) eta Eriji hiztegia (1987) sortu zituzten taldeetan parte hartu zuen.
- Euskal komunitate zientifikaren Inguma datu-basean, berak idatzitako 21 lan azaltzen dira.



Meragorai, Euskal Herria, 1792 - Santiago, Txile 1852

Andrés Antonio Gorbea

Andrés Antonio de Gorbea y Gancedo euskal herritar matematikaria eta ingeniaria izan zen, Espainiako militarra eta Txileko Unibertsitateko Fisika eta Matematika Zientzien Fakultateko sortzailea eta lehen dekanoa. Oso gaztea zela Bergarako Errege Mintegian sartu zen, non zientzia zehatzetan nabarmendu zen.

EGINDAKO LANAK:


- Gorbeak ingeniariitza artiko ikerketak eta ikasketak zabalitzen jardun zuen, lagunduz, besteak beste, ingeniariitza buntoko liburuen itzulpenean. Akademia militarrean ere eman zituen eskolak.
- 1843. urtean Txileko Ingeniari Zibilien Kolegioa sortu berriaren zuzendari izendatu zuten. Txileko Unibertsitateko Fisika eta Matematika Zientzien Fakultate sortu berriaren sorreran ere parte hartu zuen.

Haren ohoretan, Araucanía eskualdeko Gorbea hirak haren izena dauka.



Ipar Euskal Herria, 1580 - Paris 1643


Pierre Herigone



Hérigone Parisen izan zen irakasle. Bere liburu nagusiak *Cursus mathematicus, novus, brevis, et clara methodo demonstratus, per notas reales et universales, citra usum cujuscumque idiomatis intellectu facilis* (Parisen argitaratua, sei liburukiak, 1634 - 1637) zuen izena eta frantsesez eta latinez idatzitako matematikoen compendiuma zen. Liburu honetan, **Hérigonek sinbolo matematiko asko sortu zituen. Horrela angeluaren sinboloa edo "c" gutxiago adierazteko.**

Belita "T" sinboloa perpendikularra adierazteko. Berreketa adierazteko, Hérigonek **a, a', a'',** eta aber idatzi zituen (zenbatzaileak oraindik sortzekoak zirela).

Hérigonek gainera zenbaki-alfabetoa sortu zuen zenbaki-luzeak gogoratzeko, hau da bere mnemotekniko-sistema propioa. Zenbait orduko matematikazko sortzapenez idatzi zuen, adibidez paralelepipedum paralelepipedo adierazteko.



DBHko gurasoen prestakuntza: EKI



Hautzaro ikastolak prestakuntza saioak antolatu zituen azaroan DBHko 1., 2., 3. eta 4. mailako ikasleen gurasoeekin. Saioen helburuak hiru ziren: kompetentzia ereduaren ebaluazioa aurkeztea, EKI digitalaren lan egiteko modua eta metodologia berritzailea eta aitzindaria azaltzea, eta ikasle bakoitzak digitalean egiten duen lanaren jarraipena nola egin aztertzea.

Gizartea eta hezkuntza asko aldatu dira oso denbora gutxian, eta gure beharrak gure gazteek duten bizitzeko modu berrira egokitu behar ditugu. Informazio eta ezagutzaren gizarte honek aldaketa sakonak ekarri ditu gure eguneroko errealitatearen arlo guztietara: nola eskuratu eta partekatzen dugun informazioa, nola egiten dugun lan, nola definitzen ditugun elkarlanerako harremanak, nola komunikatzen garen eta nola erlazionatzen garen norbanakoen artean edota gure erakundeekin.

Eztabaida polita garatu zuten horren guztiaren inguruan gure hezkuntza komunitateko kideek. Saiok arrakastatsuak izan dira, bai asistentzia aldetik, bai gurasoen parte-hartze dinamikoarengatik. Seme-alaben heziketan elkarlanerako beste urrats bat egin dugu.



Ikasgelatik kanpo Lizarra ezagutzera

Oiartzoko 2. mailakoek Lizarran egun erdiko egonaldia egin zuten irailaren 29an

Irailaren 29an Batxilergoko bigarren mailakook eskola egun berezi bat izan genuen. Ohiko orduan geratu beharrean, 30 minutu geroago igo ginen autobusera, eta, Niesseneko geltokian denek bat egin ondoren, Lizarrara abiatu ginen. Nork bere hamaiketako patrikan zuela jaitsi ginen autobusetik, hain justu tren geltokiaren ondoan.

Lizarrara ikastera joan ginenez, gida batekin geratuak ginen herriaz gehiago ikasteko. Hala ere, ez zen hori izan gure egiteko bakarra. Aurrez jarraibide testuak landu genituenek ikasgelan, gure lana liburuxka bat egitea izan zen hiruko taldetan banatuta. Lan horrek Lizarra ezagutu nahi lukeen batentzat lagungarria izatea zuen kondizioetako bat, baina zertaz egin ikasle on esku geratu zen.

Jaitsi eta berehala, taldetan banatu ginen herriaren bisita gidatua egiteko. Kalez kale Lizarra osoan zehar ibili ginen bertako eraikin eta bestelako ondare historikoa ezagutzeko. Lanetarako argazkiak ateratzen genituen bitartean, azalpenak entzungai, inspirazio bila ibili ginen gure lanaren gaia pentsatzeko. Eliza bat izan zen lehenengo ikusi genuena, baina ez zen ikusi genuen eliza bakarra izan. Beste eraikin batzuk ere ikusi genituen, adibidez Karlismoaren museoa, hainbat eskultura eta erabilera desberdina eduki zuten eraikin mordo bat. Santiago bidea egiten dutenen antzera ibili ondoren kale eta zubietan zehar (zubiak ere bisitatu genituen eta) eta gauza garrantzitsuenen inguruko azalpenak jaso ondoren, atsedendia bat eduki genuen.

Denbora librean, librea zenez, bakoitza bere aldetik joan zen, ezagutu berri genuen herriko txokoren batera. Askok lana zertaz egin ordurako pentsatuta bagenuenez, argazkiak ateratzeko erabili genuen denbora horren zati bat. Hamaiketakoak jan eta lagun artean pasatu ondoren emandako denbora, adostutako orduan adostutako lekuan bildu ginen berriro, hau da, tren geltokian. Bertan, autobusera igo eta etxera itzuli ginen hiruretarako, Karlismoaren epizentroa izandako herri historikoan egun erdiko egonaldi bat egin ondoren.

Josu Ibarguren





Eskuttun

Urtero bezala, jarri dugu dagoeneko martxan Haurtzaro Ikastolako Eskuttun euskara elkarte. Ostiralero elkartzen gara eta lan ezberdinak egiten ditugu: Euskararen Egunerako hainbat ekintza antolatu, San Tomaseko aurkezpena prestatu...

Denak gogotsu hasi gara lanean. Sekulako taldea osatu dugu DBHko gazteekin; aurtun adiskide berriak batu zaizkigu, DBH 1eko 11 lagun berri. Guztira, 60 ikasle inguru elkartzen gara, eta, maiz, ikasle ohien bisitak ere izaten ditugu, beren esperientzia gurekin partekatzen dutenak. Haietako bik, Haizea Saez de

Eguilazek eta Uxue Flamariquek, ardurak ere hartu dituzte, eta, Doni Azkaraterekin batera, gidaritza lanetan ari dira.

Gainera, berriro ere Eskuttuneko bloga martxan jarri dugu Haurtzaro ikastolako webgunean, eta, bertan, saio ezberdinetan egindako lanak, antolatutako kanpainak... erakutsiko ditugu, baita argazkiak ere.

51 urte euskararen alde daraman ikastolan guk ere gure harri-koskorra ekarriko dugu eta zuek gure alboan edukitzea espero dugu laguntza emanez.

Haurtzaro Mendi taldeko 2017-2018 egutegia

URRIAK 8
ARTIKUTZAKO TRENA

AZAROAK 19
NEGU JAIA
OIARTZUN

URTARRILAK 27-28
IRAUPEN ESKI IKASTAROA
ETA RAKETEKIN TXANGOIA
SOMPORT



MARTXOAK 11
IBILALDI NEURTUA
OIARTZUNEN

MAIATZAK 6
RAFTING
BIDARRAI

EKAINAK 2
IKASTOLA EGUNA
GINKANA





Eskerrik asko, Peri!!

Irrifar batekin josiz
umorea ta ardura,
atletismoa bihurtu
duzu askoren ohitura,
jaurtiketak ta jauziak,
fondoak, abiadura...
baina lekuko bat nola
doan eskutik eskura,
orain guk segiko dugu
irrifartsu ta gustura,
zuk noizbait hasi zenuen
lasterketa eder hura,
haurrak hurbilduz hainbeste
maite zenuen mundura,
ta sekula ahaztu gabe
bidea dela helmuga.




Arropen bilketa

GLORR Fundazioak eskatuta, berriz ere kanpaina solidarioa martxan jarri genuen urrian. Gaur egun egoera zailetan dauden adingabeei eta familiei laguntzeko da bereziki kanpaina hau. Helburua: familia horien egoera ekonomikoak adingabeen hezkuntza garapen integralean eragin negatiborik ez izatea. Jendearen laguntzari esker, premia duten haurrei laguntzen die. Beraien proiektuan parte hartzera gonbidatu gintuzten. Horretarako, etxean erabiltzen ez ditugun ehungaiak (arropak, oinetakoak, etab.) ekarri genituen Ikastolara.



Prosa eta poesia lehiaketako sarituak

MAILA	PROSA	LANAREN IZENA	IZENA
LH3	1. SAILA		
	SARIA	Ordulari aldrebesa	Kattalin Arabolaza Palomo
	SARIA	Neska berri baten etxean	Arlene Larrainzar Ilundain
LH4	2. SAILA		
	SARIA	Ortzadarra	Lorea Kortajarena Mujika
	SARIA	Nora eta elefantea	Nara Susperregi Barroso
LH5-6	3. SAILA		
	SARIA	Zergatik nago mundu honetan?	Malen Etxebeste Lekuona
DBH1-2	4. SAILA		
	SARIA	Birraitonaren egunerokoa	Lur Lopez Fraile
	SARIA	Egia islatzen zuen ispilua	Ane Garmendia Irastorza
DBH3-4	5. SAILA		
	SARIA	Paper zati txiki bat	Eñaut Romero Lekuona
	SARIA	Orain bai!	Lohizune Telletxea Delgado
MAILA	POESIA		IZENA
LH5-6	3. SAILA		
	SARIA	Nire Malkoak	Peru Marin Ureta
	SARIA	Oroitzapenen labirintoa	Malen Etxebeste Lekuona
DBH1-2	4. SAILA		
	SARIA	Eta gaur zuretzat doa hau dena	Aintzane Flamarique Martinez
	SARIA	Muxu bat eta ongi lo egin	Elhorri Tolosa Zabala
DBH3-4	5. SAILA		
	SARIA	Trans-gresioa	Malen Elizasu Manterola
	SARIA	Geldiezina	Laiene Aranburu Gorrotxategi
16-18	6. SAILA		
	SARIA	Idatzitako amets	Josu Ibarguren Elozegi



Ford **Easo Motor**

FordFocus

Salmenta + Tailerra + Txapetan + eskaintza hobereak

Lintzirin Poligonoa, 10 - 20180 DIARTZUN

☎ 943 26 04 26 / 943 26 03 91

egia

☎ 902150404 ☎ 943102055

GEZAK S.C.

KIPOLDEGINTZA KIDEAKETA
SISTEMAREN INTEGRAL POLIOGINTZA

ELORSORDIA KOLEGIOA • Edifizioa: 24

• Tfn: 940 400 520 • M: 674 151 152

• F: 940 480 061 • egia@elorsordia.net

20180 DIARTZUN, Gasteiz

Txintxo portatu al zazle?
Eguberri on



Haurtzaro Ikastola
bizitzarako hezkuntza



Hazia heziz, loratu



Haurtzaro Ikastola
bizitzarako hezkuntza

Informa zaitez gure webgunean No dudes en consultar nuestra web
www.haurtzaroikastola.eus

